



**Jangela Zerbitzua**

## JANGELA 2018/19 IKASTURTEA

### IZENA EMATEKO EPEAK:

- Urte batetik bestera erabileran aldaketaren bat egin nahi duenak ikasturte amaieran eta iraileko lehenengo egunetan adierazi behar dio arduradunari.
- Zerbitzua ohiko bazkaltiarrekin (4 edo 5 egun astean) antolatzen da. Ondoren jakiten da urtero ez ohikoentzat lekurik dagoen ala ez.
- Ez ohiko bazkaltiar izan nahi dutenak aldiro bulegotik pasa behar dute arduradunarekin hitz egin eta apuntatzeko orria betetzera. Irailaren 15aren ondoren, hauek onartzeko arazorik balego, ez ohiko bazkaltiarren familiekin bilera bat egingo da.

### ALDAKETAK:

- Epean jarritako egun horretatik aurrera ezingo da aldaketarik egin, ez egun kopuruan, ezta egun aldaketa ere. Salbuespen bakarra ohikoen artean 4 egunetik 5era pasatzea da.
- Ikasturtean zehar ohikoren batek baja ematen badu, eta gero, berriro hasi nahi badu, ez ohikoen kuota izango du.

### KOBRANTZA ETA DESKONTUAK:

- Ikasle bakoitzari apuntatzen den egun kopurua kobratuko zaio. Kopuru hori 10 kuotatan kobratuko da.  
(Ohikoak: **4,60€** eguneko, ez ohikoak: **5,20€** eguneko, garraiatuak: **3,30€** eguneko.)

### ITZULKETAK:

- Ohiko bazkaltiar diren ikasleei %50 itzuliko zaie honako kasuetan:
  - Eskolak antolatutako zerbaitengatik (irteerak...) jangela ez bada erabiltzen.
  - Ikasle batek jangelara 4 egun jarraian huts egiten badu, gaixotasunagatik denean, sortzen den momentuan ondo abisatuta; eta beste kasuetan, 48 ordu lehenago abisatuta.
- Ez ohiko bazkaltiar diren ikasleei %100 itzuliko zaie aipaturiko kasuetan.
- Itzulketa horiek falta diren hilabeteetako kuotak birkalkulatuz gauzatuko dira.

### ABISUAK:

- Egunen batean jangela ez bada erabili behar, jangelako arduradunari 24 ordu lehenago abisatu behar zaio eta alergiaren bat duten ikasleek 48 ordu lehenago. Abisatzeko bideak: ikasleak berak eskuz idatzizko oharra emanaz, telefonoz (943555423) edo e-maila bidez ([jangela@langile.eus](mailto:jangela@langile.eus)), beti 11:00k baino lehen.
- Jangelako bazkaltiarra ez den norbaitek zerbitzua bat-bateko premia dela eta erabili beharko balu, abisatu beharko luke eta egun horretako zerbitzua eskuz ordaindu beharko dio jangelako arduradunari edo administrariari (Laubidietan). Egunekoa: 5,20 €

Edozein zalantza, aldaketaren aurrean... jangelako arduradunarengana jo behar da beti.

**Gelaburu eta Jangela Batzordeak**